

UDAL ERAKUNDEAK

HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2022ko otsailaren 16an egindako batzarraldian, Bilboko Udalean hizkuntzak kudeatzeko **Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak** onartu zituen.

Alkateak, ekainean, udal erakunde guztietako ordezkariari *Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen* argitalpena bidali zien, onartutako irizpideen berri emateko.

Gaiaren garrantziaz jabetuta, irizpideen argitalpenarekin batera bidalitako alkatearen gutunean, guztion konpromisoa ezinbestekoa dela adierazi ondoren, udal erakundeetako ordezkariari jakinarazi zitzaien Euskara eta Hezkuntza Siletik harremanetan jarriko zirela bilera baten bidez erabakitako irizpideen berri zehatzagoa emateko; izan ere, Bilboko udal erakundeek Udalak hizkuntza ofizialen erabilerarako onartu zituen irizpideen eragin-esparruan daude eta neurriak hartu behar dituzte hizkuntza bien erabilera orekatua bermatzeko.

Hauexek dira Bilboko Udaleko udal erakundeak eta atxikitako udal sailak:

UDAL SAILA	UDAL ERAKUNDEA
KULTURA ETA GOBERNANTZAREN SAILA	AZKUNA ZENTROA
	ARRIAGA ANTZOKIA
	BILBAOARTE
	BILBAO MUSIKA
GAZTERIA ETA KIROL SAILA	BILBAO KIROLAK
MUGIKORTASUN ETA JASANGARRITASUN SAILA	ARTXANDAKO FUNIKULARRA
HIRI BERRONERATZEAREN SAILA	SURBISA
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA	BILBAO ZERBITZUAK
ETXEBIZITZA SAILA	UDAL ETXEBIZITZAK
EKONOMIAREN GARAPENERAKO, MERKATARITZAKO ETA ENPLEGUKO SAILA	BILBAO EKINTZA MERCABILBAO
HERRITARREN ARRETAKO ETA PARTAIDETZAKO ETA NAZIOARTEKO GAIETAKO SAILA	BILBAOTIK

Udal erakunde bakoitzaren jarduera arloa oso bestelakoa izanik, udal erakunde guztiak batzar bakarrera deitu beharrean, banakako batzarrak egitea erabaki zen. Hori dela eta, 2022ko azaroaren eta 2023ko otsailaren artean batzarrak izan dira udal erakundeetako ordezkariekin, *Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak* aurkezteko eta komentatu ahal izateko helburuarekin.

Udal erakundeekin egin ziren batzar guztietan egitura bera erabili zen edukiari dagokionez, baina erakunde bakoitzaren ezaugarriei ondoen egokitzeko ahalegina egin zen. Bakoitzaren jarduera eta egoera ezagutzeko, galdetegi bat erantzuteko eskatu genien udal erakundeetako ordezkariari, bileraren aurretik informazioa izateko.

Hona hemen galdetegia osatu zuten galderak:

1. Zuen erakundearen baduzue onartuta euskara sustatzeko Erabilera Planik?
2. Zuen erakundearen baduzue euskararen arloaz arduratzen den atalik, lanposturik edo pertsonarik?
3. Baduzue erakundearen aurrez aurreko gunerik herritarren arretarako?
4. Baduzue erakundearen telefonozko harrera-gunerik?
5. Erabiltzen duzue erantzungailu automatikoa ohar eta azalpenak uzteko?
6. Euskaraz eta gaztelaniaz duzue herritarren eskura duzuen dokumentazioa (inprimakiak, ordainketa agiriak, kontratuak, aurrekontuak)?
7. Antolatzen duzue publizitate kanpainarik?
8. Egiten duzue argitalpenik paperean edo modu digitalean?
9. Antolatzen duzue jendaurreko ekitaldirik (aurkezpenak, sari-banaketak, hitzaldiak...)?
10. Herritarrei zuzendutako ikastaro, tailer edo antzekorik antolatzen duzue?
11. Zuen erakundearen baduzue webgunerik? Erantzuna baiezkoa bada, zein da webgunearen izena?
12. Sare sozialak: erabiltzen dituzue Twitter, Facebook edota Instagram? Erantzuna baiezkoa bada, zein da izena?
13. Sortzen ari zarete edo erabilgarri duzue herritarrei begirako app-rik? Erantzuna baiezkoa bada, zein da app-aren izena?
14. Langileen prestakuntzan euskarazko ikastaroak antolatzen dituzue?

Zeozero gehitu nahi baduzu edo oharren bat egin nahi baduzu, behean idatz dezakezu.

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak dokumentuaren beraren egiturari jarraituz, bileran azaldu ziren, lehenengo, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpide orokorrak, ondoren, itzulpeneko irizpideak; eta, azkenik, udal erakundearen zenbait jardun-eremuetan hizkuntzen erabilera zein izan behar den. Zerbitzu hizkuntzari lotutako arloak izan ziren hizpide, batez ere.

Izandako batzarren gaineko balorazioa ona da eta hurrengo plangintzaldiari begira nabarmendu da udal-erakundeekin harremanak sendotu behar direla era koordinatuan lan egin dezagun euskararen normalizazioaren alde.

Bilbon, 2023ko martxoaren 16an